

Harri eltzekaria

Gaia da : negia da. Otso zahar bat kabaleen herrialala hüilantzen da.

Lehen etxea oiloaren etxea da. Otsoak bortan joiten dü : pan-pan-pan.

"Nor da ?" , galtatzen dü oiloak.

Otsoak ihardesten dü : "otsoa da".

Oiloa lotsatzen da : "otsoa !"

"ez lotsa, oiloa : zahatürrik nüzü, ez dit haboro hortzik ere. Ütz nezan hire süpazterrean berotzera eta ene harri eltzekariaren egitera. "

Oiloa düdan da : ez da gustüan, hori segür, bena kuriüs da : ez dü egündano otsorik ikusi : ipuinen bidez baizik ez dü ezagützen...

Eta gogo honez txesta dezake harri eltzekaria. Ordüan borta zabaltzen dü.

Otsoa sartzen da. Hasperen bat egiten dü eta galtatzen dü : "otoi, oiloa, ekar ezan tipiña bat."

"tipiña bat !" kezkatzen da oiloa.

"entzün oiloa, tipiña bat behar da bai, harri eltzekari baten egiteko."

"ez dakit", erraiten dü oiloak, "ez dü sekülan holakorik txeste. »

Ordüan otsoak errezeta emaiten deio : "tipiña batetan harri lodi bat ezar, hura ezar eta eraki arte, haidürü egon. "

"eta besterik ez ?" , galtatzen dü oiloak.

" ez besterik, ez".

"Nik ene eltzekarian", erraiten dü oiloak, "apio amiñi bat gehitzen dü".

"zentako ez, gozoa emaiten dü", dio otsoak. Eta bere zakütik harri lodi bat elkitzen dü.

Bena xerriak otsoa ikusi dü oiloaren etxean sartzen. Griñatürrik da, bortan joiten dü :

pan-pan-pan.

"oro ontsa badoa ?"

"aitzina xerria ! otsoa eta ni harri eltzekari baten egiten ari gira."

Xerria estonatürrik da.

"harri eltzekaria ? Harriz baizik eginik ?".

"Prefosta" dio oiloak. "Bena apio gehi ditake, gozo amiñi bat emanen dü".

Xerriak galtatzen dü küiattoak ezarten ahal direnez.

"bai, ezarten ahal dira", dio otsoak.

Ordüan xerria ttapa-ttapa badoa bere etxera eta hantik küiatxoekin berriz horra

da. Bena ahateak eta zaldiak otsoa ikusi düe oiloaren etxean sartzen. Griñatürrik dira eta bortan joiten düe : pan-pan-pan.

"Aitzina", erraiten dü oiloak. "otsoa, xerria eta ni harri eltzekariaren egiten ari gira."

Eta xerriak zehazten dü : "apio eta küiatxo amiñi batekin".

Ahateak dio, hanitx bidajatü beitü, ümen behin Egipton harri eltzekari bat txeste züala eta han porrüak bazirela. Hortaz ontsa orit da, porrü gozoa beitzen eltzekarian habororenik gustatzen zeiona.

Oiloak otsoari galtatzen deio : "posible dea hori ? harri eltzekaria porrüekin ?" "posible da".

Zastez, ahatea eta zaldia hai-hai badoatza beren etxera eta hantik porrüak ekarten dütüe.

Bena ardia, ahüntza eta txakürra griñatürrik dira otsoa oiloaren etxean sartzen ikusi beitüe.

Ez düe bortan jo beharrik, hau zabal-zabalik beita.

Galtatzen düe : "zer ari zidee ?".

"Otsoa, xerria, ahatea, zaldia eta ni harri eltzekari baten egiten ari gira", erraiten dü oiloak.

Aisa da segidaren asmatzea : batek arbiak nahi dütü, besteak aza aipatzen dü eta gero bakotxa zista batez, badoa bere etxera eta hantik baratzekiak ekarten dütü, ororen gustüko baratzekiekin.

Orain, süpazter üngürüan jarten dira.

Tar-tar-tar elestan ari dira, erri egiteko istoriak elkarri kontatüz.

Oiloak ozenki erraiten dü : "zoin goxo den oro alkarrekin izatea ! aihariak gure artean üsüxago egin behar güntüzke."

"Hatsarrean, uste nüan oilo zopa edanen günüala", dio xerriak.

Eta ahateak otsoari galtatzen deio bere ipuin izigarri zonbaiten kontatzea, harek gaüzak nola ikusten dütüan ikusteko.

Bena hura kal-kal-kal erakitzen ari da eta otsoak xalia sartzen dü tipiñan.

"ene üdüriko," erraiten dü, "eltzekaria prest da".

Otsoak kabaleak oro zerbützatzen dütü. Aihariak berant arte iraün dü.

Txesta, justa eta musta, bakotxak eltzekaritik hiru aldiz berriz hartzen dü.

Ordüan otsoak bere zakütik nabela zorrotz bat elkitzen dü harria ziztatzen :

"ah, ez da arras egosirik", erraiten dü.

"ontsa bazaizüe, eramaiten düt, ene biharko aihariarentako".

Oiloak galtatzen dü : "jadanik abioan zira ? "

"bai", ihardesten dü otsoak. "bena eskertzen zütüet gaü goxo honentako".

"laster jinen zira berriz ?"dio ahateak.

Otsoak ez dü ihardesten.

Bena ez düt uste berriz jinen dela.